

DICHARRY, Éric
L'écologie de l'éducation. Un anthropologue
à l'école du bertsularisme en Pays Basque

Paris : L'Harmattan, 2013
 379 p. ; 24 cm.
 ISBN: 978-2-336-29909-9

Frantsesez idatzitako lana dugu haxe, nahiz eta landa-lanetik jasotako hainbat datu (ahozkoak edo ahozko estilokoak) euskaraz edo bestelako hizkuntzetan agertu. Eta, geroago ikusiko dugunez, badu ondorioirik hasierako oharmen honek. Liburuaren azalean ikus daitekeenez, L'Harmattan Taldean argitaratu izan da, talde edo argitaletxe garrantzitsua Frantziako mundu editorialean. Irakurleari zerbait esaten dio horrek; agian, egileak lortu duela argitaletxe hartako arduradunak konbentzitzea bere ekarpena ezaguna izateko duina eta baliotsua dela... eta hori, hasteko, ez da gutxi.

Eric Dicharry (Baiona, 1969) antropologoak pagotxa aurkitu du bertsolaritzan zenbait kontzeptu eta parametro erakusteko eta ikertzeko. Kasu honetan Hezkuntzaren Ekologia da gai garrantzitsuen liburu honetan eta ikerketa baten nondik-norakoak eta emaitzak argitara emateko lana dugu *L'écologie de L'éducation* izenekoa. 2009 urtean Barandiaran Fundazioak beka bat eman zion ikerketa-lan bat burutzeko euskaldunen umoreari buruz ("Le rire des Basques. Approche ethno-linguistique de l'improvisation orale au Pays Basquen ord au XXIème siècle") eta ikerketaren emaitza kaleratu egin zuen Barandiaran Fundazioaren laguntzaz (2013. urtean). Horri esker ezagutu dugu Eric Dicharry bertsolaritza aztergai izan duela antropologiaren ikuspegitik eta lan honekin beste aurrerapauso bat emana duela bistan da.

Bi zati nagusi dituen lan honek, berriz, arestian aipatutakoarekin lotura duen arren, Hezkuntzaren Ekologia delako kontzeptuari heltzen dio bete-betean eta horretarako lanaren **lehenengo zatian** kontzeptua definitu, zedarritu, adibidetu, konparatu eta jorratu egiten du, betiere ikuspegi antropologiko bati heldu nahian. Izan ere, hezkuntzaren ekologia antropologiaren ikerketetan txertagarria dela modu batez eta bestez frogatzen saiatzen da ikerlari baionarra.

Jakina, hezkuntza-prozesua gertatzen deneko lekuan hainbat eragile linguistiko, kultural eta gizartekoak kontuan hartzekoak dira hezkuntza-prozesua arrakastatsua edo eraginkorra izango bada eta bertsolaritzaren irakaskuntza bereziki arrakastatsua dela deritzo lan honen egileak. Horren frogak eta emaitzak ematen dihardu Eric Dicharry-k lanean zehar eta bere landa-azterketan jasotako testigantzak behin eta berriz ekartzen ditu gogora.

Lehenengo eta behin, eta liburuaren lehenengo zatia irreferentzia eginez, aipagarria da egileak bertsolaritza haren osotasunean kontuan hartu bai, baina batez ere Euskal Herriko Iparraldean jaso dituela hainbat testigantza, aipamen eta adibide. Ikerketa hau Frantziako mundu akademikoaren tradizioan txertaturik dago eta, zentzu horretan, ganorazkoa dirudi Frantziako kulturarekin harremanetan daudenen ikuspuntua jasotzea, dela bertso-eskolako maisu-maistren bidez, dela bertso-eskolako ikasleen, dela "bertsularien" bidez. Bestalde, ikerketak kezka bat du abiapuntu eta kezka horrek Frantziako estatua du "bizileku": hezkuntzan, oro har, dagoen degradazioarekiko beldurra. Espainiako estatuan beste horrenbeste gerta litekeen arren, Frantziako estatu zentralistan hezkuntza-sistemak bere arazoak ditu tokian tokiko errealitateetara egokitzeko eta, beraz, energia eta baliabide asko egoki probesten ez direlako susmoa –eta askotan konstatazioa– dago. Hori dela-eta, "hezkuntzaren ekologia" delako kontzeptua pertinetza da eta erantzuna eman diezaiokie hainbat proble-

matikari, besteak beste estrategia ekologikoen bitartez baliabideak ikasleengan eta euren egoera “ekologikoa” pentsatuta erabiltzen direlako eta horrek pertsona autonomoagoak eta pentsamendu kritikoa askeagoa jorratzen dituelako. Eric Dicharry-k, bestalde, “hezkuntza-ren ekologia” orain arte nagusi izan den hezkuntza-ren sistemaren neoliberalarekin alderatzen du eta frogatu nahi du, kultura-produktuen kontsumitzaile hutsak izatetik, sistema ekologikoari esker, ikasleak euren kulturaren ekoizleak izatera igarotzen direla, euren autoestimua areagotuz eta euren autonomia sustatuz. Bertsolaritzaren kasuan, arreta ez dago produktu materialetan zentratuta, hizkuntzan, pertsonen gurari kulturaletan eta hizkuntza-eskubideetan jartzen da enfasia, eta horrek ikasleengan erantzukizun tinkoagoa sustatzen du gerora aprendizaiaren eragin tinko eta emankorra emango duena.

Jakina, planteamendu honek hezkuntza-testuinguru jakina dauka gaur egungo bertso-ekolen mugimenduan. Hurrek, bertso-eskoletan hasiera batean harreman ludiko/umoretsua dute ahozko genero honekin, motibazioa eta hizkuntzarekiko gustua sustatu nahi direlako. Gerora, hauraren plazera sormenarekin lotzen joango da; izan ere, norberak sormena garatzen duela dakusanean norberarekiko autokonfiantza eta lorpen-sentsazio gus-tagarria esperimendatzen du. Baina horretara ailegatzeke, lehenengoz gatazka kognitibo bat suertatu behar da eta hori bertso-eskolako irakaslearen gidaritzarekin lortzen ahal da. Gatazka kognitibo horri erantzuteko baina, ikaslea ez da bakarrik egongo: taldearen, ikasledeen laguntza izango du eta sormen prozesua beste lagunekin batera garatuko du. Hori da hezkuntza-ren ekologiaren beste printzipioetako bat eta hori da hezkuntza-ren ikuspegi konstruktibistarekin lotzen duen joera bat. Hezkuntza-ren ikuspegi konstruktibistaz oso kontziente dira Frantzia aldean eta han izan du lur ona Lev Vygosky-ren konstruktibismoak. Teoria honek badu loturirik “hezkuntza-ren ekologia” delakoarekin eta bertso-ekolen sistemarekin; izan ere, haien izaera sozialari esker, bertso eskoletan interakzioa edo elkar-eragiketa da oinarrikoa eta, baita, testuinguruarekiko harremana eta *feedback* ere. Beraz, bere teoriaren finkatze horretan Eric Dicharry-k argi uzten du bertso-eskolaren sistema *de facto* eskola konstruktibistan kokatzen dela eta dagoeneko ausartzen gara adieraztera haxe dela baionarraren ekarpen nagusietako bat lan honetan.

Hezkuntza-ren ekologia delako parametroa oinarritu ostean, bere ikerketaren zenbait arlo praktikori heltzen dio Eric Dicharry-k lanaren **bigarren zatian**. Lehenengo eta behin, nahiz eta argi geratu den bertso-laritzea sormenerako esparrua dela, ikerlariak erakutsi nahi du bertso-laritzearen jarduerak zenbateraino baldintzatzen duen bertso-laritzearen izaera edota pentsa-erara. Horretarako punta-puntako zenbait bertso-laritzekin (Sustrai Colina, Amets Arzallus, Andoni Egaña...) eta aditu batekin (Karlos Aizpurua) izandako elkarrizketen emaitza azaltzen du. Beraietan tentsio bat ageri da; izan ere, alde batetik ezin ukatuzkoa da bertso-laritzearen jarduerak trebezia batzuk garatzen laguntzen duela, hizkuntza aldetiko trebeziak, jendaurrerotasuna, trebezia diskurtsiboak... Baina, bestalderetik, bertso-lariek eurek aitortua, norberaren izaera edota abiapuntu ideologikoa garrantzitsua omen da bertso-jarduna norabide batera edo bestera eramateko. Deskubrimendu horrek eramaten du egilea bertso-laritzearen “motorrak” zeintzuk izan daitezkeen hausnartzera. Xerka horretan eta hasteko, egileak beharrezkotzat ikusi du bertso-laritzearen ikuspegi historiko bat ematea. Historia hau euskarazko ekoizpen akademikoan ezaguna da jada, baina frantsesez gutxi landu da eta material garrantzitsua izaten ahal da Dicharry-ren hau.

Alde batetik, hasieran aipatutako ikerketa-ildo bati segida emanez, umorea aipatzen da lehenengoz motor lege (Manuel Sein, “Xanpun” bertso-lari lapurtarraren testigantza baliatzen da, besteak beste, alderdi hau azaltzeko). Bestetik, argi dago sormenaren plazera dela hainbat ikasleri erakargarria egiten zaiona bertso-eskoletan izena emateko eta jarraitzeko (nahiz eta jakin bertso-lari bilakatu ez direna). Lagunarteko giroa, umorearekin nahasketatua humus emankorra da sormen partekatuari ekiteko eta halaxe dela demostratu nahi du Dicharry-k. Hirugarren motorra hizkuntzarekiko atxikimendua da; izan ere, bertso-eskolaren esparrua hizkuntza-ren utopiarendako eremu libre da, aldi berean egoera komunikatibo jakinak eskaintzen direlako (inguruko errealitatea fikzionatuz) eta ikasleen indibiduotasun lin-

guistikoak oihartzuna duelako taldean. Laugarren motorra kulturaren berrasmentak litzateke. Bertsolariak euskal kulturaren abangoardian daude euskal kulturaren diskurtsoa euskaraz berrasmentzen ari direlako etengabe. Ez da eurena euskal kulturarekiko diskurtso definitibo edota bakarra, baina bada oso kontuan hartzekoa, besteak beste “euskaratik eta euskaraz” goitik behera ehundua delako (eta kultura-teorizatzaileen artean gutxi dira euskara euskal kulturaren muintetik kanpora kokatzen dutenak). Bosgarren motorra norabide biko da: alde batetik, bertsolariak badu barne-neurgailu bat bere diskurtsoa kudeatzeko inguruko eragileak kontuan hartuta eta efektuaren komenentziari begira; bestetik, bertso-jarduera bera (umore edo fikzioaren bidez), barne- eta kanpo-neurgailuen presioetatik askatzeko bidea ere bada eta hori bertsolari askok eta askok eskertzen diote bertsolaritzari.

Bertsolaritzaren motorrak arestian aipatutakoak direla frogatzeko modurik eraginkorrena bertso-eskolen funtzionamendu zehatza azaltzea omen da eta halaxe egiten du egileak. Hau, berriz ere, euskarazko ekoizpen akademikoan ezaguna da dagoeneko, baina frantsesez azaltzeak lan antropologiko baten testuinguruan badu bere balioa.

Bigarren zatiko hirugarren kapituluaren izenburua galdera bat da: “Nola bilakatzen da norbera bertsolari?”. Izan ere, azken hamarkadetako esperientziak eta lanek demostratzen dutenez, bertsolari egin egiten da, ez da jaiotzez emandako dohain bat (garai batean uste hain nahiko hedaturik zegoen arren). Bat-batean bertsotan aritzen ikasi arteko prozesuan zeintzuk diren estrategiak, jarduerak eta ariketak birpasatzen dira kapitulu honetan. Egileak probesten du azpimarratzeko prozesu honetan ikasleak ez duela berenganatzen jakintza intelektual soil. Ikasketa integrala da eta, besteak beste, kulturazio tonala ere burutzen da, zeinen bidez ikasleak bere herriko kultura jasotzen duen, kultura horren alderdi batzuk bertsoaren berenganatuz. “Learnig by doing” delako estrategia ere azaltzen da, adieraziz (eta hau paradoxikoa gerta dakioke baten bati) ez dagoela kontraesanean metakognizioarekin; hau da, bertso-eskolako ikaslea ailegatzen da gogoeta egitera egiten duen horretaz: bertsoaren konposizioaz, bertso-jardueraren ezaugarriez, norberaren ikasketaz... Baina, hirugarrenez diogu hau, kapitulu hau ere euskaraz (eta neurri batez gaztelaniaz) burutu den jardura akademikoan ezaguna da. Frantsesez azaltzearen ondorioa, berriz, erakargarria suerta dakioke tradizio akademiko frantseseko zenbait ikerlariri.


Bigarren zatiko laugarren kapituluaren, azkenik, hondarrek gogoeta batzuek ematen diote bukaera lan mardul honi. Metodologiaz dihardu, alde batetik, eta, modu sintetizatu batean, lanean zehar iradokitako ekarpenak laburbiltzen ditu Eric Dichary-k. Bertsolaritzaren irakaskuntzaren alderdi soziala azpimarratuta geratzen da berriz, bai eta norbanakoengan sorrarazten duen autonomia-zentzua eta zein jabekuntza. Hezkuntzaren ekologjaren printzipioak nola datozen bat bertso-eskolaren printzipioekin ere nabarmentzen da kapitulu honetan, ikasleen eta gizartearen interesei erantzunez burutzen direlako.

Lanaren **hirugarren zatian** lanaren eranskinak daude, ia liburu osoaren heren bat osatzen ailegatzen direnak. Berez, ez du izenburutzat “hirugarren zatia”, baizik eta “Annexes” (eranskinak), baina hirugarren zati mardula osatzen dute eranskin horiek, zalantzarik gabe. Lehenengo bi zatitan aztertu, frogatu eta erakutsitako guztiaren euskarriak dauzka hemen irakurleak, egilearen hainbat iruzkin jakingarrirekin. Hori bai, corpusaren zati handi bat euskaraz jasota dagoenez, testuak euskaraz agertuko dira aldamenen euren frantseseko itzulpena dutela. Hau ere arestian aipatutako lan honen balioaren zati bat da, itzulpen lan eskerga burutu behar izan duelako egileak.

Oihartzuna eta zeresana eman beharko lukeen lan baten aurrean gaude. Oihartzunaren zati handi bat, jakina, kultura eta mundu akademiko frantsesaren esparruan izatea espero dugu, frantsesez eman delako argitara eta hango zenbait erreferentzia eta ohitura akademiko implementatu direlako lan honetan. Eta horren beharra du, zalantzarik gabe, euskaraz burututako jardura kultural honek, bertsolaritzak, alegia, *strictu sensu* neurri batean Frantziako estatuaren eremuan garatzen delako berori. Baina oihartzuna izan behar du, oro har, antropologiaren munduan zenbati proposamen eta kontzeptu erabilgarri eta onuragarri (hezkuntzaren ekologia, inkulturazio tonala, metabertsolaritza, bertsolaritzaren konstruktibismoa

eta metakognizioa...) dagoeneko bertsolaritzaren irakaskuntzan inplementatuta daudela erakutsi duelako egile baionarrak, modu argian erakutsi ere. Azkenik, euskal kulturaren eta euskarazko ekoizpen akademikoan ere *boomerang* efektua izatea espero izatekoa da, gure euskal mundu hau ere aberasten ahal delako lan honen ekarpenekin, antropología delako bertsolaritza aztertze bide bat oraindik hastapenetan dagoena.

Asier Barandiaran



GARAI, Mikel
Las Letras/Hizkiak. Una interpretación del mundo. Hipótesis desde el euskara y el espacio

Berriozar : Cénlit Ediciones-ARTika, 2014.
 424 p. : il. ; 24 cm.
 ISBN: 978-84-15756-34-7

“Es una verdad eterna que los signos expresan los secretos de la Naturaleza”. Con esta cita de Foucault comienza este ensayo que, hace apenas unos días, ha presentado el Arquitecto Miguel Garai (Donostia, 1936). Quizá el lector que lea el título y ojee por encima este libro pueda pensar, a priori, que se trata de un ensayo de ámbito filológico, pero nada más lejos de la realidad.

La interconexión entre disciplinas y distintos ámbitos del conocimiento como Lenguaje, Arte, Ciencia, Religión y Mito están en la base del pensamiento rector del libro “Hizkiak/ Las letras. Una interpretación del mundo”.

En el libro se pueden encontrar los pensamientos de filósofos como Gilles Deleuze, Felix Guattari, Lucrecio, Trías, Heidegger, Bachelard... etc. junto a artistas como Kandinsky, Mondrian, Klee... arquitectos como Gottfried Semper o Aldo Rosi, antropólogos como Lévi-Strauss o Joseba Zulaika, etnólogos como Leroi-Gourhan, físicos como Stephen W. Hawking y Michel Serres o lingüistas como Benveniste y Resurrección M. de Azkue.

Contemplando la portada, tras el título, 21 letras, blancas sobre negro, simples y compuestas, aparentemente ordenadas y agrupadas en una suerte de matriz 3 por 7 nos dan la clave para estructurar una obra que, ante todo, es una invitación para explorar los límites de nuestro conocimiento. Una obra cuya lectura hará sin duda las delicias de epistemófilos, amantes de las “ἐπιστολή” (epistolí: letra) y especialistas en las travesías de espacios disciplinares en continuo movimiento.

La oralidad y una lengua, el euskera, cuyo origen se pierde en la noche de los tiempos y mantiene de forma manifiesta las marcas originales de su nominación primera, son la excusa perfecta para intentar rescatar la esencia y el sentido original de los sonidos del lenguaje. Sonidos que son representados por las letras, las cuales surgen en este libro como símbolos portadores de los grandes secretos de la Naturaleza.

En este caso, Miguel Garai aprovecha las líneas de investigación abiertas en su Tesis Doctoral “Arquitectura y límites” para presentarnos este ensayo.